

Jon Gorospe

EUS

Urban Morphologies
2026.03.27-2026.06.28



Urban Morphologies

[Hiri-morfologiak]

Jon Gorospek berreskuratu egiten du berriro ere 90ko hamarraldiaren amaieran eta 2000ko hasieran presentzia handien izan zuen gaietako bat: hiriak. Garai hartako artistak liluraturik eta kezkatuak zeuden adituek emandako datu kezkatuak honekin: 2050. urtean, biztanleen % 50 hiri-eremuetan biziko dira. Orain dela hogeita hamar urte, hamar mega-hiri zeuden eta gaur egun hogeita hamazazpi dira, eta horietako bakoitzean hamar milioi biztanle baino gehiago bizi dira, hau da, zazpiehun eta berrogeita hamar milioi lagun. Gertatu ohi den moduan, etortzeko denaren aurreko hipersentsibilitate egoera hori desegiten joan da prozesu horren normalizazioaren ondorioz, eta beste gai batzuek hartu dute haren lekua. Jon Gorospe normalizazio horretaz baliatzen da hiri-eremu horien eta bertan ibiltzen diren gizabanakoen nolabaiteko ontologia bisuala egiteko. Marc Augéren «ezlekua» —igaroleku, zerbitzu edo kontsumo horiek definitzen dituen globalizazioaren hitz ikonikoa, non subjektua oinezko bat, erabiltzaile bat edo bezero bat baita— leku arrunta bihurtu da, «gehiegizko modernotasun» esaten zion kontzeptu horri dagozkien zeinuen bilduma batean: identitatearik eta memoriarik gabeko eremuak ugari diren mundu baten ezaugarria, non giza esperientziak koiunturala, funtzionala eta anonimoa izateko joera baitu.

Hamarkada batez baino gehiagoz, Jon Gorosperen lanak arkitekturaren eta haren eta herritarren arteko harremanaren inguruan orbitatzen du. Horretarako, serietan zatitzen ditu bere gogoetak, hirietako bizitzako zenbait arazo lantzen dituztenetan. Argazkilaritza, bideoa eta instalazioa baliatzen ditu bereziki bere lana erakusteko, baieztapen handirik gabe, Deleuzek «ideiak totalka esatea» definitzen

zuenaren antzera: berak bere buruari egiten dizkion galderak eta ikusleoi egiten dizkigunak.

Hainbat begirada mota erabiltzen ditu: segurtasun-kameren nonahikotasuna imitatzen duena, Foucaultek salatu zuen panoptiko metaforikoa, gaur egun hiri erdiguneetan segurtasun-kameren bitartez normalizatu dena (Londresek, esate baterako, milioi bat segurtasun-kamera inguru ditu, CCTV izenekoak). Pertsona anonimoez eta enpresa espezializatuak hartutako hiri-paisaien Interneteko irudiak hartzen ditu, Googleko Street Viewkoak esaterako; horrek aukera ematen dio paisaiaren identitateari buruzko gogoeta egiteko, «egiletzarik gabeko» irudien bitartez. Publizitatea ere azterketa gaia da beretzat, hiru dimentsioko euskarrietara eta bideo pantailara eramaten du hots bisual hori. Bideo horien edukiak publizitatearen irakurtezintasuna sinbolizatzen du.

Erakusketaren ataletako batean arkitekturak gizartearen parte bati dion etsaitasuna erakusten du, eta azpimarratzen du hark baztertzeko duen ezaugarria. Azkenik, hiri-ikonografiaren zatien irudiak erabiltzen ditu, berak eginak, ezaugarri arkitektonikoak eta turistaren eta kalean dabiltzanaren keinu klonatuak identifikatzeko. Gorosperen ustez, horiek dira eremu publikoek eskaintzen duten anonimotasun maila, bereziki enpresen eta erakundeen eraikinek agerian uzten dutenean ez dagoela bizitzeko eraikinik. Eremu horietan batera daude iragankorra dena eta etengabea, eta eremu horietako arkitekturak erakusten du Byung-Chul Han korear filosofoak XXI. mendeko edertasunaren ezaugarri komun gisa azpimarratua: leundua dena.

Gorospek, leunduaren ezaugarri hori indartzen duten euskarriak erabiliz inprimatzen ditu bere argazkietako batzuk: aluminioaren gaineko sublimazioak, DIBOND gaineko arrasto lakatuak edo metalezko xaflen gaineko proiektzioak. Bere erara, argazkiaren alderdi berezi bat erabiltzen du, semiotikaren arabera zeinu fotografikoaren dualtasunean oinarritzen dena, hau da, indizearen eta ikonoaren artekoa, irudi batek kultura edo gizarte batean estatus sinbolikoa eta errepresentatiboa lortzen duena. Bere lanak zubiak eraiki nahi ditu, dokumentuen behaketa zorrotzaren eta espazioaren irakurketa

kontzeptual eta poetikoaren artean. Adibidez, erretaulen hizkuntza bisualean inspiratutako lanetako batean, antzinako mitologiak berregiten ditu, intimoaren eta monumentalaren artean dabilzan narratibak sortuz.

Irudien protagonismoak, Gorosperen lanean iradokitzen den gaiak, bultzatu zuen Peter Sloterdijk filosofoa esatera «irudi-mundua» globalizazioaren gainazala da, non errealitate globala ez baita zuzenean esperimintatzen, irudien bitartez baizik. Irudi horiek ez dute besterik gabe mundua irudikatzen, hura eratzen dute beren baitan, eta globalizazioaren mintzaleku gisa funtzionatzen dute.

Noraezean



Getxophotok ekoizitako proiektu honetan, Jon Gorospe *flâneur* garaikide moduko bat bihurtzen da, eta sarean sartzen da, bete-betean, chun irudi hartu eta haiei berriro argazkia ateratzeko, Euskal Herrira mugatutako eremu geografikoan: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi (Labourd), Nafarroa Beherea (Basse-Navarre) eta Zuberoa (Soule). Miaketa digital horretatik ateratako artxiboak aukera ematen digu bestelako hurbilketa bat egiteko —hiperregistratua, hiperfotografiatua— karga historiko eta sinboliko handia duen paisaiara; hurbilketa horretan, elkarri lotzen zaizkie algoritmoak, sareak eta periferiak. Artifizialki eraldatutako paisaiari buruzko gure iruditeria eguneratzen eta esanahi berri bat ematen dion begirada bat da, bai hirigintzaren alorreko helburuekin, bai industriari edo estetikari dagozkionekin. Portuak eta industrialdeak, pasealekuak eta plazak, unibertsitate-campusak eta kirol-zentroak dira Gorospek baliatutako espazioetako batzuk.

Erabilitako irudi guztiak dira *online* kontsulta daitezkeen mapetatik eta kale-izendegietatik hartuak. *A priori* identitatearik ez dutela badirudi ere, baliteke, paradoxikoki, oso markatuak izatea. Edonola ere, hamarnaka irudi erakutsi eta gero, beren identitatea desegiten da, eta horregatik dira arrakastatsuak neurri batean. Askotan, 360 graduko ikuspegiak erabili dituzenez, horietan barrena nabigatzeko, ebakitzeko eta okertzeko aukera izan du, eta harri batek barruan eskultura bat gordetzen duen moduan, «zizelkatu» egiten ditu Gorospek argazki horiek, horietatik zer ateratzen duen eta elkarrekin nola hitz egiten duten ikusteko.

Noraezean serieak hainbat ondorio ateratzeko aukera ematen digu. Eraikitako espazioen etengabeko homogeneizazioa da, orobat, deigarriena eta nabarmenena, eta baita haien trukagarritasuna eta despertsionalizazioa ere. Ibilaldi horietan, identitateari dagokionez zero mailako paisaia mota bat erakusten da batzuetan. Hala ere, agerikoak dira, oraindik, identitate bat eraikitzeko balio izan duten zenbait zeinu.



Polished Cities

[Hiri leunduak]

Serie honetan aipatzen da Byung-Chul Han-ek XXI. mendeko edertasunaren ezaugarri komun gisa azpimarratu zuena: gauza leundua. Objektuek, bizileku dugun hiri-ingurunean —banakakoa eta kolektiboa—, ikusmenari eta ukimenari erresistentziarik ez egitea da helburua. Arkitekturan eta zenbait espazio pribilegiaturen hiri-diseinuan ikusten da fenomeno hori: finantza-barrutiak, eraikin burokratikoak, plazak eta igarobideak. Gaur egun, leuntasunerantz jotzen duen morfologia dute guztiak.

Botereari eskainitako arkitektura garaikideak gatazkarik gabeko diseinuak proposatzen ditu espazio komunetarako, leuntasunerako joera duen morfologiaren bitartez, eta, horrela, komplexutasunaren, desberdintasunaren eta giza mugikortasunaren aurrean, gatazkak deuseztatu egin direla dirudi.


Lan hau osatzen duten irudiek, finduak eta minimalistak, arkitektura berri horren parte gisa funtzionatzen dute, eta figurazioaren mugan jarduten. Apaindurarik gabeko kale eta plazak dira, apaingarririk gabeko

fatxadak eta leuna ez den testurarik eza nagusitzen da. Gainazalen leuntasuna, egitura modularrak eta lauki-sareak etengabeak dira, eta marruskadurarik gabeko estetika baten zerbitzura daude guztiak. Estetika horretan oso erraz monitorizatzen dira subjektuak —oinez doazenak, ibiltzen direnak edo gelditzen direnak—, berehala hautematen baita edozein etadura gainazal leun batean. Antzinako glazisaren eraikitzaileek bazekiten hori.

Estilita izeneko politikoak ere ageri da. Eta finantza-eraikinen pisuari eusten dioten harroinak eta zutabeak dira protagonistak. Ordena arkitektoniko berri baten erregistroa dira. Harroinei eta zutabeei erabilgarritasun praktikoa kentzen zaenez, elementu horiek morfologiara mugatzen dira: arkitekturatik eskulturarako igarobidea dira, hortaz. Izenburuak V. mendeko kristau erlijiosoei egiten die erreferentzia; haiek ospetsuak ziren basamortuaren erdian kokatutako zutabeen gainean ematen zutelako bizitza, otoitz egiten eta penitentzian. Era horretara, mundutik urrundu eta zeruetako erresumara hurbiltzen ziren.




The Spot
[Iragarkia]



Espazio publikoetan publizitateak gure begirada nola eragiten duen aztertzen du serieak. Espazio horietan, inguratzen gaituen paisaiaren parte dira kartel argiztatuak eta pantaila handiak. Azken urteotan, publizitate-pantaila horiek filmatzen eta horiei argazkiak ateratzen aritu da Gorospe, eta iragarki horien forma eta edukia muturrera eramateko tresna gisa erabili du kamera; hala, abstrakzioa nagusitzen da interpretatzeko aukera ororen gainetik. Arte abstraktuak alternatiba bisual gisa funtziona dezakeela oinarri hartzen duen ideia interesatzen

zaio, une oro ondasunak eta zerbitzuak saldu nahi dizkiguten irudien aurkako defentsa.

Kamerak iragarkietatik jasotako irudiak alderatzeko duen gaitasuna interesatzen zaio, eta irudien ekoizpen-sistemak berak irudiak ekoizteko dituen tresnak erabiltzen ditu. Horretarako, hiru dimentsioko pieza uhinduak eraiki ditu, eta pieza horien formatuak ikuskizun bihurtzen du publizitatearekiko bizikidetzatza. Bideoa erabiltzen du, halaber, pantailen zarata bisuala eta gailu horietako askok oinezkoentzat duten edukiaren irakurgarritasun zaila azpimarratzeko.



Peripatetic Studies: The Hostile

[Ikasketa peripatetikoak: aurkakoa]

Proiektu hau babes-arkitektura garaikidearen forma eta erregistro desberdinei buruzkoa da. Arkitektura hori erabat aurkakoa eta oldarkorra da, eta inklusioaren gainetik bazterkeria lehenesten duten diseinu eta aldaketetan adierazten da. Serie honek hiriko erabileren mugaketa azaltzen du, eta orobat azaltzen ditu diseinuari dagokionez, eta modu isilean, bereizle eta isolatzaile diren erabakien geruzak. Eraikinetan eta eraikin-elementuetan egin diren aldaketa horiek —bai asmatu direnetan bai eraiki ondoren inplementatuetan— bizimodu jakin batzuk ukatzen dituzte (nomada, adibidez), edo agerian uzten dute atsedena eta etenaldia erbestera egin direla hiriguneetatik.

Aurkako arkitekturaren presentzia maltzurri aurre egiten dionez, proiektu artistiko honek funtsezko introspekzio sozialerako katalizatzaile gisa jotzen du. Espazio publikoen berezko balioa ateratzen du argitara, herritar guztientzako agertoki demokratiko eta inklusibo gisa.



Peripatetic Studies: Bivouac
[Ikasketa peripatetikoak: vivaca]



Etixerik gabeko pertsonak hirietan sortzen dituzten espazio inprobisatuak dokumentatzen ditu *Bivouacek*. Ikuspegi antropologiko baten bidez, norbanako horiek beren hiri-ingurunearekin nola elkarreragiten duten ulertzea bilatzen du proiektuak, eta, orobat, erakatsi nahi du eraikitzen dituzten egiturek beren beharrak, asmamena eta erresilientzia islatzen dituztela.


Arkitekturaren ikuspegitik, etxerik gabeko pertsonak hiri-espazioak nola eraldatzen

eta berrerabiltzen dituzten aztertzen du *Bivouacek*. Metro karratu guztiak kontu handiz orkestratuta eta araututa dauden hirietan, aterpe horien izaera iragankor eta moldagarriak eten egiten du hiri-espazioaren egitura zurruna. Babesleku iragankor horiek dokumentatzean, proiektuak agerian uzten ditu hiri-plangintzaren mugak eta bazterketak, eta zalantzan jartzen du zer gaitasun duten horiek biztanle guztien beharrei erantzuteko.



The Grid

[Lauki-sarea]



The Grid bideo-mapeoko instalazio bat da. Bideoaren, hotsaren eta argazkiaren bitartez, hainbat hiritako pertsonak erakusten dira beren eguneroko joan-etorrietan. Argazkiek zelatatzeko kameraren neutraltasun lehorra simulatzen dute, eta horrek ikusia izan gabe begiratu ahal izateko ahalmen faltsua ematen dio ikusleari, eta, aldi berean, inork begiratzen ez diela uste dutenen jarrera arduragabea azpimarratzen du. Gorospek arreta berezia jartzen du horien mugitzeko moduan, haiek jantzien bitartez bereizteko nahian eta hiri-eremuaren mugitzeko erabiltzen dituzten gailuetan. Hala, ikusgarri izateko anonimotasunera igarotzen dira proiektzioan, txandaka. Eta, nolabait esatearren, arkitektoek beren proiektuen azken emaitza ikusi ahal izateko bezeroentzat erabili ohi dituzten 3D infografietan estra gisa ageri ohi diren fikziozko pertsonen antza hartzen dute. Proiektu horiek altxatzen direnean — sortuberri, ikusgarri eta aurpegia garbi-garbi—, espazioan dabiltzan pertsonak behartzen dira, nolabait, haien maila berean jartzera.

Mugimendua ikertzeko ahalegin horretan, Eadward Muybridge-ren lan sonatua berreskuratu zuen Jon Gorospek, hura ere antzeko kontuak aztertzen ibili baitzen 1800. urtearen amaieran. Hark bezala Gorospek ere bidaiariak testuingururik gabe erakusten ditu. Erreferentziazko irudiak garbitu nahi ditu, *commuters* delakoak [lanera egunero garraioan joaten diren beharginak] izan daitezen garrantzitsuena, eta lausotu egiten da beren banakako identitatea gauza bera egiten ari den jendetzaren erdian. Azken batean, arkitekturaren erruz, edo hari esker, kalean gertatzen diren fenomenoak dokumentatzen saiatzen da, eta, horretarako, aditzera ematen du hiri-diseinua ez dela kalterik eragiten ez duen diziplina bat eta, zenbaitetan, arazoak konpontzen baditu ere, beste batzuetan, sortu egiten dituela.

Industria-iraultzarekin batera, hiriak hainbat eremutan zatitu ziren: erdigune historikoak, etxebizitza-auzoak, industria-eremuak, etab. Biztanleak alde batetik bestera mugitzeko beharra garraio publikoa ezarri konpondu zen. Gaur egun, joera hori askoz agerikoagoa da. Hiriak argi eta garbi banatuta daude: batetik, erdigune historikoa; bestetik, etxebizitza-

auzoak. Hirien erdigunean aisiarekin edo zerbitzuekin lotutako jarduerak garatzen dira; etxebizitza-auzoetan, berriz, etxebizitzak baino ez daude, Rem Koolhaas arkitekto eta saiogileak *Hiri generikoa* argitalpenean ondo dioen moduan.

Serie honetarako, Gorospek milaka pertsonaren argazkiak egin zituen metro-geltokietara eta horien inguruetara bidean, edo bertatik iriteten. Gainera, audio-pistak grabatu zituen Tokio, Paris, Milan, Oslo, Kopenhage edo Madrilgo metropolietako garraio publikoetan. Bidaiariak muntaia sozio-teknologiko baten parte nola bihurtzen diren ikustea interesatzen zaio: giza baliabideak + trenak + hiri-azpiegiturak. «Gorputz kolektibo» horrek Rosi Braidottik deskribatutako «kondizio posthumanoa» dakar gogora, non gizakiaren eta makinaren arteko mugak lausotzen baitira, pertsonak askogatik gainditzen baitute haien eskala eta alienatuta baitaude.

Gorputz horiek ekoizpen-kate baten zerbitzura nola mobilizatzen diren islatu nahi du, salgaiak muntaketa-sistema industrial batean nola, halaxe mugitzen direla hirian barna, garraio-zerrenden gainean. Keinu horien alderdi mekanikoak sortutako lilura itzultzeko, *video-mapping* teknikekin proiektatzen ditu irudiak, lauzen edo xafla metalikoen gainean. Instalazioaren murgiltze-efektua areagotzeko, soinu-efektuen pieza bat erantsi zion, eta bankuei, gainera, bibrazio-bozgorailuak gehitu zizkien: hala, jendea esertzen denean, jarlekuek metroko bagoien esperientzia antzeratzen dute.

Skyline

[Hiri-silueta]

Skyline gorputz bat da, eta hiriko espazioen morfologia antzeratzen du, argazkien bitartez. Hirietan presente dagoen funtsari egiten dio erreferentzia serieak, non batera baitaude iragankorra dena eta etengabea. Instalazioan etengabe leheneratzen da funts hori, eta modulu arkitektonikoen bitartez ateratzen da; modulu horiek hiri garaikidearen ideiarekin lotu ohi ditugun eraikinen bolumenak goratzen dituzte, hiru dimentsiotan.


Gaur egungo hirietako bizitzaren etengabeko jarioa jaso nahi du. Hainbat kontzeptuk osatzen dute aurkeztutako irudien erdigunea, hala nola konpresioa, tentsioa eta abiadura, eta horiek gaur egungo hiri-esperientziaren funtsezko baldintzak erakusten dituzte. Konpresioa pertsonen, arkitekturen eta azpiegituren gainjartze trinkoan azaleratzen da, eremu mugatu baten barruan, eta gizabanakoek elkarri eragiteko eta mugitzeko dituzten moduak taxutzen ditu. Abiadurak hiriko bizitzaren erritmo bizkorra, mugimendu konstantea, larritasuna eta eraginkortasun eskakizuna definitzen ditu. Tentsioa sortzen da, aldiz, espazio pertsonalaren eta esperientzia kolektiboaren arteko marruskaduratik, eta baita mugimenduaren eta gelditasunaren arteko, konexio-nahiaren eta atzera egiteko beharraren arteko marruskaduratik ere. Indar horiek fisikoak zein psikologikoak dira, eta obraren hizkuntza bisualean txertatuta daude, modu sotilean.

Hiri-egitura kolektiboan zabalasunaren eta ikuspegi indibidualen intimitatearen artean mugitzen dira irudiak, eta hiriko bizitzaren irakurketa estratifikatu eta multifazetikoa egiteko espazio bat zabalitzen dute horrela. Lauki-sare modularri esker, lana arintasunez egokitzen da formatu eta testuinguruetara. Hiri-profilaren erritmoa gogorarazten du, azaleratzen eta tolesten diren eraikinen lerro

irregular baina harmonikoarekin. Horrela, hiri-paisaiak egokitzeko gaitasuna islatzen du lanak: aldi berean dira antolatua eta irregularrak, egituratuak eta biziak.

Proiektuan formatu handiko hainbat lan daude, ikuspegi ez-sekuentzialeko ikuspegia eskaintzen dutenak; era horretara, norabide askotako narratibak ezagutzeko aukera izango du ikusleak. Lan horiek erretratu moduko lanen tradizioa eguneratzen dute, baina testuinguru garaikidean, eta mitologia berriak zein zaharrak interpretatzeko erabiltzen ditu. Esate baterako, *Igokundea* mosaiko piramidala lan monumental bat da, eta kultura eta erlijio askotan erabili izan den igokundearen mitoa sinbolizatzen du; hiritik zeruranzko igoera irudikatzen du. Beheko parteak hiri-bizitzaren dentsitatea eta konpresioa atzitzen du. Erretaularen erdigunean, zeruranzko pasabide gisa zabalitzen da bidaiak. Azkenik, goiko aldean, ilargia gorputz kosmiko bat balitz bezala agertzen da, eta erakusten ditu leunki bai ezaguna dena bai ezezaguna, biak, eta baita oraindik ezagutzeko dagoena ere.

Gertaleku berri horiek, gero eta inpersonalagoak eta trukagarriagoak diren heinean, aldi berean dira erraz identifikatzekoak, eta halako etxekotasun berri bat sortzen dute. Horregatik, hiri-paisaiak berriek migratzaileen harrera errazten dutela iruditzen zait, adibidez. Azken batean, hiri garaikideek estandar berak dituztela kontuan hartuta, horien pean identifikatu eta geure burua asmatu dezakegu. Gure munduan, hiriak gero eta antzekoagoak dira, eta, aldi berean, gure bizimodua likidoagoa da —Zygmunt Bauman *dixit*—: lanez, etxez, hiriz edo herrialdez aldatzen gara; eta fenomeno horrek gauza ezustean positiboak dakartza. Azkenean, gauzak ez dira inoiz guztiz zuriak edo guztiz beltzak; grisen itsasoan nabigatzea dagokigu.





Urban Morphologies.
Jon Gorospe
27.03.2026–28.06.2026

ANTOLAMENDU ETA
KOORDINAZIO OROKORRA
Kutxa Fundazioa

KOMISARIOTZA ETA TESTUAK
Alejandro Castellote

ARGAZKIEN INPRIMAKETA
Estudios Durero
Khio, Oslo

MARKOZTATZEA
Enmarcaciones Tamayo
Fellesverkstedet, Oslo

DISEINU GRAFIKOA
underbau

AROTZ-LANAK
Carpinteria Aguado

MARGOLARITZA
Margotek

GARRAIOA ETA ENBALATZEA
Cloister

MUNTAIA ETA ARGIZTAPENA
Expolan

IKUS-ENTZUNEZKO ZERBITZUA
Telesonic

IKUS-ENTZUNEZKO
KOMUNIKAZIOA
Gosho

ITZULPENAK
Rosetta t.Z.
Peter Sotirakis

ERROTULAZIOA
Druck

HEZKUNTZA
Koma Zerbitzu Kulturalak

ASEGURUA
Axa XL

INPRIMAKETA ETA KOADERNETA
Gráficas Lorea

Kutxa Fundazioak bere esker
ona adierazi nahi die erakusketa
honetan modu batean nahiz
bestean parte hartu eta lagundu
duten pertsona eta entitateei.

Bitartekaritza

Bisita komentatuak

Igandetan, 17:30ean euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz
Sarrera doan, aurretik izena online emanda

2026ko apirilak 25, larunbata, 11:30-13:30, Kutxa Fundazioa Artegunea
Hiri garaikidea [La ciudad contemporánea], **familientzako tailerra**
La Casa del Vaciorekin.

Hiriak etengabe ari dira aldatzen, pertsonak bezala. Nola lagun diezagukete eraikinek hobeto bizitzen? Hiriaren eta bertako biztanleen arteko harremanari eta arkitektura gure izaeran gailentzeko moduari buruz gogoeta egiteko tailerra.

6 eta 12 urte bitarteko haurrak, heldu batekin

Euskara

5 euro haurrak, helduak doan. Izen-ematea webgunean

Programa publikoa

2026ko apirilak 25, larunbata, 11:00 -13:00, Kutxa Fundazioa Artegunea
Arkitektura eta hirigintza tailerra. Nola lortu hiri-espazio publikoa topaketa eta harreman gune izatea? Koldo Telleria
arkitektoarekin.

Elebiduna euskara-gaztelania

Plaza mugatuak. Izen-ematea eta informazio gehiago, webgunean

2026ko ekainak 12, ostirala, 18:30, San Telmo Museoa, ekitaldi aretoa
Urban Morphologies fotoliburuaren aurkezpena, **Jon Gorospe eta Juanjo Justiciarekin (underbau).**

Gaztelania

Sarrera librea lekuak bete arte

STM-GOIC

Gabriela
Gendoya
Bergareche
Collection

STM
San Telmo Museoa

2026ko ekainak 13, larunbata, 10:00-14:00 / 14:30-18:30 eta ekainak 14,
igandea, 10:00-14:00

Argazki tailerra. Derivas y prácticas de fotografía urbana

[Noragabe ibiltzea eta hiri-argazkigintzaren praktikak] **Jon Gorospe argazkilaria**rekin.

Gaztelania

Prezioa 15 euros

Plaza mugatuak. Izen-ematea eta informazio gehiago, webgunean

Informazioa

T. (+34) 943 25 19 37

E. hezkuntza_artegunea@kutxakulturartegunea.eus

Erreserbak: www.kutxafundazioa.eus

Ordutegia

Asteartetik igandera

12:00 – 14:00

16:00 – 20:00

Sarrera
doan
